


Seme-alaben bizi-kalitatea hobetzea helburu

Orain dela hilabete batzuk, martxoa aldera, Ermuan ikasleen guraso-elkarte ia guztiak biltzen dituen koordinakundeak sortu zen. Talde hau guraso batzuen ekimenari esker sortu da, eta horrek halako kutsu berezia ematen dio haien lan egiteko moduari.

Ardatz nagusi baten inguruan egiten dute lan, beti ere hezkuntzari lotua: seme-alaben ikas eta bizi kalitatearen hobekuntza.

Baina, nori zuzendutako lana egiten du koordinakunde honek? Nola banatzen dute lana? Zeri ematen diote lehentasuna? Galdera horiek erantzuteko topagune berri honetako bi partaideekin mintzatu gara: Julia Dominguez (Ongarai Eskolako IGEkoa) eta Antonio Garcia (Teresa Murga Eskolako IGEkoa)



DROGETENITTURRI- ZER DAGO ZUEK PARTAIDEETAKO BI ZARETEN KOORDINAKUNDE BERRI HORREN ATZEAN?

Julia Dominguez eta Antonio Garcia- Ermuko ikasleen guraso-elkartez osatutako lan-talde bat, zeinek

IGE hauek guztiak koordinatu eta elkarlanean jarriko baititu.

D.- NOLA ETA ZERGATIK HARTU ZENUTEN LAN-TALDE HAU OSATZEKO ERABAKIA?

komunitateak
aseguruak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

San Pelayo 6-A (Eroski gainean) - 46 P.K. - Ermua

opariak
arropa informala

ECLAINE

Karabixta 1. zbk. behea

PRO

- ARRAINDEGIA - ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

ESKAINZA BEREZIA OSTIRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59 ERMUA

E I AKADEMIA

ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI
INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g
Telefona (943) 17 38 24

MUGA

KALORIK

SEXTO CENTENARIO, 7
Teléfono 17 64 77
ERMUA

PATXI TABERNA

Gau eta egun
Alde zaharreko betiko taberna

MASAI TERAPEUTIKOA
ETA ESTETIKA

ARCOS

Zeharkalea, 12 - M^a LUISA RODRIGUEZ
Entlo. - 1. atea
Tlf. (943) 17 63 81

J.D.e.A.G.- Orain dela hilabete batzuk, Drogomenpekotasanaren Prebentziorako Udal Sailetik, egunero funtzionamenduan interesgarri izan zitezkeen hainbat gai buruz hausnarketa egin eta elkarlanean aritzea ahalbidetuko zuen dinamizazio-egitarau bat eskaini ziguten, eta bertan parte hartu zuten ikasleen guraso-elkarte guztien keka eta beharrak antzekoak zirela ikusi ondoren, denon artean arazooi aurre egiteko koordinakunde bat martxan jaretzea iruditu zitzaigun.

D.- NOLA FUNZIONATZEN DUZUE? ZER BALIABIDEREGIN?

J.D.e.A.G.- Martxoan, gutxi gorabehera, jarri zen martxan koordinakunde hau. Harrez gero, bileren bitartez funtzionatu izan dugu, beraz, momentuz taldea aurrera ateratzeko elkarlana besterik ez da izan, baina datorren ikasturtea hasi bezain pronto gurasoen formakuntzarako zuzenduta dagoen ikastaro bat antolatu nahi dugu eta hori ordaintzeko Hezkuntzarako Udal Sailak emango digu dirua.

D.- NORTZUK OSATZEN DUZUE KOORDINAKUNDEA?

J.D.e.A.G.- Eskolabarri, Teresa Murga, Ongarai (lehen eta bigarren hezkuntza), Anaitasuna eta Sallabente ikastetxeetako IGEok.

D.- HEMENDIK AURRERA ZER EGITEKO ASMOA DUZUE? ZEINTZUK DIRA TALDEAK DITUEN ERRORRONTA BERRIAK?

J.D.e.A.G.- Besteak beste, zentru bakoitzaren jarraipena egin, gure seme-alaben ikas eta bizi kalitatea hobetu, prebentzioa bultzatu, gurasoen heziketa, udal sailekin elkarlanean aritzea...

D.- ZER PROPOSATZEN DUZUE HELBURU HORIEK LORTZEKO?

J.D.e.A.G.- Lehenik eta behin, kontzienteak izan behar dugu gurasook, gure inplikazioa gero eta ga-

rrantzitsuagoa izan behar dela gure seme-alaben hezkuntzan, alegia, gurasoen ardura dela hein handian seme-alaben hezkuntza. Beste batzuek gure arazoak konpondu edota indibidualki jokatzera ohituta gaude, denon artean arazo berdinak konpondu edo hobetu beharrean.

D.- ZER ESKATUKO ZENIEKETE IGEETAN PARTE HARTZEN EZ DUTEN GAINONTZEKO GURASOEI?

J.D.e.A.G.- Animatzeko. Duzkagun arazoei eta beharrei era egoikiagoan aurre egiteko indarrak batu eta elkar koordinatuz denon artean egin behar dugula, gu geu baikara gure seme-alaben hezkuntzaren lehenengo arduradunak, eta beren garapena onena izan dadin arduratu behar dugunok garelako.




Horregatik, guraso guztiak laguntzera eta proiektu honetan parte hartzera etor daitezten gonbidatzen ditugu.

D.- NORAINO LAGUN DEZAKE HORRELAKO TALDE BATEK HEZKUNTZA-GARAPENEAN?

J.D.e.A.G.- Hezkuntza ez da eskoletan bakarrik ematen dena; edozein tokitan ematen da, eta horregatik, prozesu honetan, geuk ere oso lan ona egin dezakegu, eskolak ez baititu behar guztiak asetzen, eta bide batez, gure formalkuntza aberastuz doa.

*Testua: Esther Etxaniz
Argazkiak: Santos Vega*

Harategia



M. LAZKANO

Bertoko Okelak
Geure Baserrian Hazitako Txalak
Geuk gizendutako abeltzantza
Merkatua, 36-37 zbk.k - Tfnoa. 17 05 84
Ermua

*Euskara eta euskaltegia
egin biak zureak!*



Gure Etxea z/g (Ongarai)
Tfnoa. (943) 17 09 25

QUETZAL

Opari denda
Zure gustokoa izan dadila!

Goienkale kalea ☎ 17 43 62



Pub

SCORPIO

Zubiaurre, 21 behea
ERMUA

SIRIMIRI TABERNA

Pintxo eta bokatak

Erdiko kale, 11